

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elduain



Aurkibidea

Udalerria: Elduain

Sarrera



Tolosaldeko udalerria.
Hizkeraz ere eskualdeko
gainontzeko herriein
parekotasun handia dauka.
Herri hauek ditu mugakide:
iparraldean, Hernani, Urnieta
eta Andoain; hegoaldean,
Berastegi eta Gaztelu;
ekialdean, Goizueta; eta,
mendebaldean, Berrobi eta
Belauntza. Euskal hiztunen
portzentaje esanguratsua
dela-eta UEMako (Udalerri
Euskaldunen
Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 232
- **Euskaldunak:** %98,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **10**
- Pasarteak: **23**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **16**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Juan Bautista Aldunberri Armendariz (1927)



Elduaingo "Gorrane" baserrian jaioa. Baserri txikia zen, eta ez ziren senide gutxi. Gerra ondorenean miseria handia bizitakoa. Fabrikako diruak lagunduta aurrera egindakoa da Juan Bautista. Paper fabrian lanean hasi, han [Maria Teresa Urkizu Garaia](#)rekin ezkondu, eta enpresako etxeetan bizi izan ziren urtetan zehar, Elduainen "Gure Txokoa" etxea eraiki zuten arte.

Miren Armendariz Peñagarikano (1920)



Zortzi senideko familian jaioa, Elduaingo Basantza baserrian. Gaztetan Beotibar paper lantegiko nagusien etxera joan zen neskame. Berrobira ezkondu zen gaztetan, eta han bizi zen elkarriketa garaian ere.

Patxi Iriarte Iruretagoiena (1913)



Eldua auzoko "Ursallanea" baserrian jaioa. Gerra garaian frontean soldadu ibilitakoa. Handik itzulitakoan paper-fabrikan sugin aritu zen erretiroa hartu arte. Berrobiko [Joxepa Irisarri](#)rekin ezkondu zen eta Elduaingo Arretxe baserrian bizi izan dira ordutik.

Joxepa Irisarri Lizaso (1928-2013)



Berrobiko Martinsoro baserrian jaio eta Elduaingo Arretxe baserrira ezkondua [Patxi Iriarte Iruretagoiena](#) elduarrarekin.

Mikela Karrera Etxeberria (1924)



Elduaindarrak zituen gurasoak, baserritarrak biak. Bera ere Elduainen jaio zen, Olaondo baserrian. Hiru senidetan zaharrena, baserriko lanetan aritu zen gazte-gaztetatik Elduaingo [Miguel Soroa](#) pilotari ezagunarekin ezkondu zen arte. Seme bat izan zutenean, Tolosara joan ziren bizitzera. Gehien atsegin duena paseatzea da.

Simon Nazabal Etxeberria (1929)



Elduaingo "Aranbegi Behera" baserrian jaioa. Musika eta antzerki zalea. Txistulari eta txistu irakasle aritutakoa. Musikarako afizioa Elduainen bizi ziren bi ahizpak (horietako bat herriko maistra) sorrarazi zuten beregan (kantu eta antzerki klaseak eman zituzten herrian zenbait urtetan, eta garai haietan Elduaingo elizako korua lau ahotsetara kantatzera heldu zen). 1960 ets 1966 bitartean Elduaingo alkate izana.

Ramon Olasagasti Leiza (1934)



Ollokin jaioa, Etxeberrin. Aita Ollokiko zentral hidroelektrikoko arduraduna zen, eta bertako nagusien etxea izandakoa zen Etxeberri. Elduaingo lurretan egon arren, etxea Andoaindik gertuago zegoen Elduaindik baino, eta elizara, aldiz, Berastegira joan behar izaten zuten. Gaztetan Andoainera joan zen lanera, eta ondoren Berrobira ezkondu zen. Han bizi izan da azkeneko urteetan.

Migel Soroa

Benigna Urkizu

Elkarrizketa egin zitzaionean, 67 urte zituen.

Maria Teresa Urkizu Garaiar (1933)



Berrobiko "Sorondo" etxean jaioa. Gurasoak elduaindarrak ditu biak. 7-8 urterekin Elduaina bizitzera joan zen bere familia, eta han hasi zen gazterik lanean, paper fabrika. Han [Juan Bautista Aldunberri](#) ezagutu, eta berarekin ezkondu zen. Paper fabrikak orduan langileei beraren pisuetan bizitzeko aukera eskaintzen zien, eta hala, fabrikak utzitako pisuan bizi izan ziren urtetan zehar, Elduainen "Gure Txokoa" etxea eraiki zuten arte.

Maria Zabala Egues (1914-2010)



Elizalde baserrian jaioa, oso gazterik ama galdutakoa. Baserriko lanetan ibili zen bere gaztaroan, eta ondoren gerratik zauritua itzuli zen bere anaia zaintzen aritu behar izan zuen urte askoan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Baltsean ibiltzeagatik Kongregaziotik botatzeko arriskua

- **Hizlaria(k)**: Zabala Egues, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ELD-001/010
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:21:43. **Bukatu**: 00:23:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

- **Laburpena:** Kongregazioaz hitz egiten du. Baltsean ibiliz gero zinta morea jartzen zien eta ondoren kongregaziotik kanpora botatzen zituzten. Neskame ibiltzen zirenek ederki zekiten baltsean. Behin baltsean ibiltzeagatik abisua eman zieten sakristiara joateko eta Kongregaziotik botako zituztela esan zieten; zinta morea ez emateagatik ez ziren Kongregaziora joaten.

Transkripzioa

- Ta kongregaziyuak-eta bazian ordun?
- Kongregaziyuak-ta bai. Txintxo ibiltzen zan ordun kongregaziyoko jendea. Ta baltsen-ta ibiltzen bagiñen, berriz, aurreneko egunen zinta morea, ta hurruna berriz'e ibiltzen bagiñen, fuera kongregaziotiken! Ta beste kongregazion aurren hola denak errenkan [sillen] jarri ta han eoten giñen. Batzuk goitik behera ta bestek zeharka elizen. Ta hala, ni ta beste bat ibili giñen balsen. Baltsen jakin ez, ta ibilli. Bestek ikusten giñun ta! Neskame jutun zien neskak etorri ta haik bai earki! Ta gu inbirin-ta ibiltzen giñen. Baltsen hasten giñen ta... Hala, baltsen genbintzela, ta, abisoa. Ta baltsetik [geldittu] giñenen, neska txoro batzuk bazien hor, ta zea juteko, sakristia juteko. Ta sakristin esan zuen, hor ziela maixtrak, maixtrak jutun zienak, gure maixtrak, "Hok die —apaizai esaten zien— baltsen ibili dienak hok die", ta "Baltsen ibiltzen bazeate, kongregaziotik fuera, e! Ta oain ibili zeatelako zinta morea eman beharko dezue". Ta zinta morea ematea lotsa zan, ta bat'e ez giñen jutun kongregazioa orden. Bat'e ez jun, hoixe. Baiño ordun komunioa bai jun, komunio hartzea bai jun, baiño kongregazion ez giñen jartzen. Libre! Ta holaxe ibiltzen giñen.
- Ta kongregaziyuan meza zan garaian beste eliza batea jutun ziñaten o ze iten zenuen?
- E?
- Kongregaziyoa ez juteatik ze iten zenuen, aparte jarri, ondón?
- Bat'e ez, lehengo tokin, lehen jartzen giñen eozein tokitan jarri itten genun orden. Hola.

2. Aisia

2.1. Elduaingo festetan komeriak baltseko kontuekin

- **Hizlaria(k):** Zabala Egues, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ELD-001/011
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:23:36. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Kultura » Musika
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Konfesatu egin behar izaten ziren. Festetan baltsean ibili zirela kontatzen du. Hernaniko Beltza zen soinu-jotzailea eta bere anaia, berriz, danborra jotzen zebilena. Alkatea terrazara atera zen eta jendeak soinua gelditzeko eskatzen zionean, ezetz esan zien, berak ere

gustura dantzatuko lukeela esanez. Hau dena Elduaingo festetan gertatu omen zen, irailaren 8an.

Transkripzioa

- Ta gero konfesatu in behar.

- Bai hua´re konpesatu in behar! Ta apaizak ez ibiltzeko gero, e! Zea zala, hue pekatue zala. Ta pestak etorri die ta baltseko soiñua hasi du plazan, ta baltseko soiñua hasi zonen, jendea baltsen, ta guk´e ibilli in ber gendula ta gu´re ibilli giñen. Ni Ermentariko o Errotazaharreko Seberianokin nitzen baltsen, ta nere lagune zan berriz Elduko [Goienetxekokin]. Ta baltsen hasi gea ta alkatek soiñu jotzaillena jun ta... Hernaniko Beltza zan soiñu jotzen ta nere anaia danborra jotzen. Harek [emanazi zun], “Earki jotzen dek hik danborra ta nei asko laguntzen diak eta hi jarri nere ondón danborra jotzen” esaten zion nere anaiai. Hasi die dantzan baltsen ta, hasi gea ta, alkatea bultzaka bata besteai, denai; zea, nexka... beste nexkan aitte´re bai bultzaka baltsea, soiñujotzailei, ta “Nei erregea etortzen bada´re ez naue hemendik kenduko e, hau nerea da, ta nik aintzet hemen, hoik nahi duena ittea daukea”. Ta alkatea Goitia zan ta terraza atea da ta “Alkatea! Ez al dituzu ikusten hok, baltsen nola dabilten! Soiñu hoi geldittu zazu!”, “Soiñua geldittu, motel? Nahio nuke nik holako sasoia banitxoken, seittun hasiko nitxoken baltsen!” harek, berriz, Maixueneko terrazatik. Haik pestak! Haik pestak ibiltzen giñun! Jesus! Mundu guztitik baltsen ibili nahi ta ez uzten! Ta bat´e jakiñ ez baltsen ibiltzen. Ibilli! Bestek ibiltzen ziela ta gu´re ibilli. A! Hoik komerik ibiltzen giñun guk.

- Hoi ze, Elduaingo festetan?

- Elduaingo pestatan, bai.

- [...] izaten zan hoi o noiz izaten zan?

- E?

- Noiz izaten zian festak hemen?

- Ocho de septiembre. Holaxe ibiltzen giñen gu.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ume zela, mendian galdu zen aitaren bila joanda (ELD-001/002)

Bi anaia zituen; eta, bere ondorengo anaia erditzean, ama hil zen. Ama ez zuen ezagutu. Aita artzaina zen eta hark hazi zuen. Goikoetxeko aitonak sehaskan zaintzen zuen. Behin gelatik ihesi egin zuen eta mendira joan omen zen aitaren bila, arkume txikiak ikustera. Mendian aurkitu zuen gizon batek eramán zuen etxera bueltan.

2. Jende pobrea eskean etortzen zitzaien baserrira (ELD-001/003)

Txikitan eskolara bidaltzen zuten. Maisua beti paseatzen ibiltzen zela dio. Eskolan ez zuen asko ikasi. Anaiekin etxean egoten zen eta beldurrez ibiltzen zen eskean etortzen zirenekin. Jende pobre asko etortzen zen kaletik eskean. Janaria ematen zieten. Beraiek ez zuten goserik pasa, taloa, gazta, urdaia, sardina zaharra, bakailaoa... jaten zituzten.

3. Herriko eskolan bihurrikeriatan (ELD-001/004)

Eskolan, mutilak eta neskak elkarrekin ibiltzen ziren. Eskolan euskaraz ibiltzen ziren, nahiz eta maisua erdalduna izan. Sariak ematen zizkieten eta bere anaiari pilota eman zioten. Anaiak txoria bizirik harrapatu eta eskolan maisuari bota omen zion, denek barre egiten zuten bitartean. Ez zuten fundamenturik egin eskolan, bihurrikeriatan ibiltzen ziren, bata besteari tinta botatzen eta horrelakoetan. Ez zituzten zigortzen. 14 urtera arte izaten zen eskola. Ondoren, Iruñeko maisua etorri zitzaion.

4. Baserrian egiten zituzten lanak (ELD-001/005)

Baserrian lana egiten zuen, artoa egiten eta. Bi behi zeuzkaten eta ardiak mendian. Txekorrak saldu egiten zituzten eta diru harekin ogia ordaintzen zuten. Tolosako Korreo kalean, Garmendia zenean egiten zituzten enkarguak. Izebak ekartzen zizkien enkarguak eta etxeko garbitasunaz ere bera arduratzen zen.

5. Gerra hasi zenean, eskopetak eskatu zizkieten (ELD-001/006)

Gerra etorri zenean, anaia Iruñean zegoen San Ferminetan; handik greba zetorrela esanez bueltatu zen. Kanpotik etorritako mutil gazteak etxera eskopeta eske etorri zitzaizkien. Gerra bukatu zenean, ehizara joaten ziren eta bata bestearen eskopetak ikusi zituzten, gerra garaian kendutakoak. Haietako eskopeta batekin gertatutako salerosketaren anekdota kontatzen du.

6. Itsua zegoen anaia zaintzen (ELD-001/007)

Orain lehen baino bekatu gehiago daudela dio. Orain jendea utzita dagoela pentsatzen du. Gerra tristea da, ez du horrelakorik gehiago ikusi nahi. Anaia itsututa gelditu zitzaion gerra ondoren eta berak zaindu zuen. Donostiara medikura eramane zuen eta medikuak ez zuen euskaldunik ikusi nahi. Anaia elizara, tabernara eta Tolosara eramaten zuen eta erretiratu zenean pentsio txikia jarri ziotela dio.

7. Soldaduak joaten ziren mezara joatea debekatu zieten (ELD-001/009)

Hiru anai-arreba ziren. Herriko apaiza Etxeberria zen eta ez zen txarra. Soldaduak mezara joaten ziren jaietan. Bi meza izaten ziren eta apaizak debekatu egin zien soldaduen meza berera joatea.

8. Jaietan soinua plazako arkupeetan (ELD-001/012)

Elduaindik ez ziren beste inora baltsera joaten. Jaietan plazako arkupeetan soinua jotzen zuten. Herrikoek etxera erretiratzeko eskatzen zieten eta mutilak atzetik segika izaten zituzten. Oraingo gazteek lasaitasun gehiago dutela pentsatzen du. Orduan infernura joango zirela esaten zieten eta orain, berriz, ez.

9. Herriko festetan, hainbat joko egiten zituzten (ELD-001/013)

Festetan, oilaskoa lurrean sartzen zuten, lepoa kanpoan zuela, eta hari lepoa moztu behar izaten zioten ezpatarekin mutilek, begiak tapatuta zituztela. Koxkola apustuak ere egiten zituzten.

10. Txikitako jolasak eta kalabaza batengatik pasatako beldurra (ELD-001/014)

Sokasaltoan eta harri-txingoka ibiltzen ziren. Tortolosean ere ibiltzen ziren. Neska asko elkartzen ziren jolasteko. Berastegira paseatzera joaten ziren eta hango mutilak harrika ibiltzen zitzaizkien. Behin, neska batzuk garrasika etorri zitzaizkien beldurtuta, etsaiak zeudela esanez. Gerturatu zirenean, barnean kandela piztuta zuten kalabazak besterik ez zirela ikusi zuten, Berastegiko mutilek haiek izutzeko jarritakoa.

11. Gaztetan mutilekin gertatutako anekdota (ELD-001/015)

Berastegiko mutilak astakiloak ziren. Behin, oinez joan ziren Berastegiko batengana kandelak erotera; eta, bueltan zetozela, mutilak elur-tiraka hasi zitzaizkien; neskek korrika jaitsi behar izan zuten.

12. Baserriko janaria, gosea eta kontrabandoa (ELD-001/016)

Baserrian lana egiten zuten, artoa egiten, patata, garia. Ogia ere etxean egiten zuten. Taloa aitak egiten zuen, tomateekin, gaztarekin, sardina zaharrekin. Ogia erosteko dirurik ez zuten eta txekorra saltzen zutenean ordaindu behar izaten zuten. Txokolatea gutxi izaten zen. Gerra ondoren gosea pasa zuten. "Monigote" deitzen zituzten patata batzuk jaten zituzten. Irin bila menditik barrena kontrabandoan joaten ziren. Ilunduta zegoela joaten ziren Guardia Zibilak ez harrapatzeko. Astoarekin joaten ziren.

13. Baserrian lan asko egiten zen, baina dirurik ez zegoen (ELD-001/021)

Kintoak eskatzen zituztenean, denak joaten ziren. Ez zegoen lanerako inor. Emakumeek ere lanera atera behar izaten zuten, eta beldurrez zebiltzan bonbak botatzen zituztelako. Gerra tristea da. Baserrian behintzat jatekorik bazuten. Orain dena erosi egiten da. Lehen garia eta artoa ere egiten zuten. Lan asko egiten zen baserrian. Dirurik ez zegoen. Zerbait saltzen zutenean ordaintzen zituzten gauzak. Ez zegoen kapritxotarako dirurik. Ez zegoen orain bezalako erretirorik. Orain jendea markesak bezala bizi da; eta, hala ere, kexaka.

14. Emakumeak neskame edo fabrikara (ELD-001/023)

Emakumeak neskame joaten ziren. Beste batzuk fabrika hasi ziren lanean. Gutxi irabazten zen. Hamabost egun pasa ondoren, duro zilarra. Orain dirua dago, denok aberatsak gara.

15. Gosea dagoenean edozer jaten da (ELD-004/005)

Juan Bautistaren arrebak tortillak prestatzen zizkion soldadu zebilenean. Gosea zeukatenez nahiz eta lizunduta egon jan egiten zuten. Baserrian ere gosea pasatzen zen.

16. Lehen lana oso gogorra zen (ELD-004/006)

Obran ibilia da Juan Bautista, lan gogorra egiten. Gaur egun dena errazagoa da.

17. Errotara gauez gosearen garaian (ELD-004/007)

Gosea pasa dute. Gauez errotara joaten ziren gariarekin. Orain gauzak asko aldatu dira hemen behintzat.

18. Egunero janari berdina (ELD-004/010)

Egunean hiru aldiz jaten zuten. Goizean, esnea eta taloa. Eguerdian potajea eta gauean patata egosiak. Edateko berriz, ura. Kafea ez zuten ezagutu ere egiten.

19. Obrako lana eta fabrikako lana (ELD-004/011)

Soldadu 17 hilabete pasa zituen. Itzuli zenean lanean hasi zen eta jornala amari entregatzen zion. Soldadu joan aurretik obran lan egin zuen, mendiak garbitzen. Fabrikan papera pintatzen zuten. Beranduago gaueko zaintzaile bezala lan egin zuen fabrikan eta horren truke bertako etxean bizi ahal izan zuen. Etxe hura ez zen ordaindu behar. Haiek urte onak izan ziren.

20. Gaztetako parrandak (ELD-004/015)

Gazteak zirenean ez zuten osasuna zaintzen. Parrandak ere egiten zituzten. Parrandak nolakoak ziren azaltzen digu.

21. Inguruko herritako festetara (ELD-004/017)

Gaztetan, beste herritako festetara joaten ziren. Soinujolea izaten zen baino baltsean ibiltzea bekatutzat hartzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com